

TTAKUN (H)ERRENKA

Zer dugun fikzioaren alde

U

da aurreko azkeneko Ttakunean idatzi nuen errealtatearen gordina utzi eta fikzioa

MARC CAMPÀ



Beñat Sarasola



Apalolaza



Padron

idazten hasiko nintzela erabaki nuela; hau da, denbora pasarako, entretenimendurako egokia den horretara igaroko nintzela. Koldo Ordozgoitik esango lukeen eran, “ipuinak” idaztera; hots, ipuinak, izenaren gutxiespen zentzuan, Rosa Diezek esango lukeen moduan, UPyDko buruak, alegia. Ez dakit garbi geratu zen ikuspuntu zabaldu bezain inozo horren lepotik trufatzen ari nintzela, eta jada aurreko lerro motzetan frogatuta geratu den gisara, halakorik egiten ahalegintzea eginahal antzua iruditzen zaidala.

Ikuspuntu materialista-positibista horren arabera, alde batetik munta handiko aferak leudeke, *benetako errealtatea*, zeina, esan gabe doa, gizonzko adituen auziak liratekeen. Beste aldean, kontu erlatiboak, garrantzia handirik gabekoak, hots, *ipuinak*, kultura kontuak, artista erdi-maritxuena. Eskema binomial horrek –jada XVIII. mendetik mota guztietako argudioz kritikatur izan dena– nagusia izaten jarraitzen du gure artean. Izan eskuineko edo ezkerreko, gehienek bat egingo dute zatiketa horretan, gogoan izan bestela ortodoxia marxista zurrunenaren infraestruturasuperestruturaren banaketaren interpretazioa.

Auzia, ordea, ez da zenbait uste edo nahi luketen bezain sinplea. Jose Luis Padronen Ttakunak Judith Butler filosofo famatuaren azkeneko lana –*Frames of War: When Is Life Grievable?*– irakurtzen harrapatu nau, non, besteak beste, errealtate gordinenean –gerran– nola errealtate materialetik at jo ohi diren zenbait gauza –errepresentazioak, irudiak, markoak (*frame*)...– funtsezkoak direla azaltzen baita. Ur handiak dira Ttakunaren laburrera ekartze-

ko, baina liburu egokia da pentsatzeko, benetako errealtatea omen den hori, zenbaitek hain argi duten hori, ustez baino askoz ere fikzionalagoa edo erlatiboagoa dela. Tira, ez larregi urduritu, ez dut esan nahi honekin dena dela erlatiboa, dena dela fikziozkoa, eta, honenbestez, ez dagoela errealtate

ulertzen zertan tematu beharrik. Baina errealtatea zer den ulertzeko erabiltzen ditugun errepresentazioen eta markoen gainean hausnartzeari uko egitea, amore ematea da. Amore ematea etikoki, politikoki eta are estetikoki ere. Butlerrek gehien erabiltzen duen adibidea gerrako heriotza kopuruena da. Berez, seko zoratur ez dagoen edonork aitortuko dizu heriotza oro dela berdinki arbuigarria. Aitzitik, gerrako heriotza kopuruak erabiltzerakoan arazorik gabe onartzen ditugu heriotza arteko mailaketak. Badaude egon heriotza negargarriak (zibilak, emakumeak, haurrak) eta inongo lotsarik gabe ospatzen direnak (Osama Bin Laden). Horrek ez du esan nahi gerretan heriotzarik ez dagoenik –ondorio absurdua litzateke horibaizik eta aproblematikoa dirudien errealtate horretaz berba egitea ez dela datu objektiboak arrantzatzea soilik, datu horiek arrantzatze kanabera behar delako –eta kanabera mota asko dago merkatuan– lehenik, eta arrainak prestatu behar direlako gero –eta errejeta mordo halaber–.

Fikzioari dagokionez, antzera gertatzen da. Uste orokorrak dio errealtatearekiko halako mundu paralelo bat osatzen duela arteak. Ken-ipinisko mundu bat, entretenimenduzkoa, hutsala *benetako errealtatearentzat*. Gaur egun ahaztuak ditugun situazionista handiek gogorarazi ziguten, ordea, *artea gauzatu* egin behar dela. Gauzatu, hots, *benetako errealtate* bihurtu, materialista zurrunen mintzaira erabiltzearen. ■



Errealitatea zer den ulertzeko erabiltzen ditugun errepresentazioen eta markoen gainean hausnartzeari uko egitea, amore ematea da.

Amore ematea etikoki, politikoki eta are estetikoki ere. Butlerrek gehien erabiltzen

duen adibidea gerrako heriotza

kopuruena da